



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publiko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen Zerga-ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onespena ematearen iragarkia.

2026ko otsailaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 25 zenbakian, argitaratu da «Bizkaiko Garraio Partzuergoko tituluen erabiltzaileei bidaiarien garraio publikoa emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala» aldatzeko behin-behineko erabakia jendurrean jartzeko epeari hasiera ematen dion iragarkia, xedapen iragankor bat sartuz, eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1 artikularekin bat etorriz, bost (5) eguneko epean jendurrean egon ondoren eta Kontseilu Nagusiak 2026ko otsailaren 18an egindako bileran behin-behineko erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, aipatutako Ordenantzan behin betiko onartutako aldaketan testu osoa argitaratzen da:

Bilbon, 2026ko otsailaren 18an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA****XEDAPEN IRAGANKORRA**

«Abenduaren 23ko 17/2025 Lege Dekretuak aipatzen dituen helburuak lortzen laguntzeko asmoz, bereziki Energia eta Klimaren Plan Integratuan (PNIEC) berotegi efektuko gasak murrizteko aldaketa modalari nahiz deskarbonizazioari dagokienez ezarritako helburuak lortzen laguntzeko asmoz, 2026ko otsailaren 21etik 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko da bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua emateagatik erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifei dagokienez gaur egun indarrean dauden neurrien aplikazioa.

- Ordenantza honetako 2. artikuluan aipatzen den 12 urtetik beherakoak salbuetsita egongo dira 2012ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako adingabeak, 2026ko otsailaren 21etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean.
- Ordenantza fiskal honen 4.1. eta 4.2. artikuluetan jasotako zerga-kuotak, «Gazte» tituluei dagozkienak, % 50 murriztuko dira 2026ko otsailaren 21etik 2026ko abenduaren 31ra bitarteko aldian.
- Ordenantza fiskal honen 4.1. eta 4.2. artikuluetan jasotako zerga-kuotak, «Gazte» ez diren tituluei dagozkienak, % 40 murriztuko dira 2026ko otsailaren 21etik 2026ko abenduaren 31ra bitarteko aldian.

Aldaketa hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta bere artikuluetan berriaz ezarritako ondorioak sortuko ditu.